



IRUZKINAK, ERABAKI AURREKO ZIRRIBORROAREN GAINEAN. IRM: OGP EUSKADI 2018-2020 EKINTZA-PLANAREN DISEINUARI BURUZKO TXOSTENA

Foro Erregularreko eta bost konpromiso-taldeetako kide guztiei azaldu zaie agiriaren zirriborrea, eta Euskadiko Artxibo Historikoan uztailaren 10ean egindako bileran aurkeztu eta landu da. Bileran horretan, talde horietako 42 pertsonak parte hartu dute.

Agiri honen zirriborroaren gainean egindako iruzkinetan akatsak eta zehaztasun-faltak identifikatu eta azalpenak eskatu dira soilik, iruzkin horiek txostenaren azken bertsioa egiteko orduan kontuan har daitezten. Ez dira, jaso, bestalde, uztailaren 10eko bileran jorratu diren proposamenak, txosten-zirriborro horretan agertzen diren gomendioak garatzeko, plana ezarri edo bigarren plana diseinatzeko fasean zehar.

Txostenean azaltzen den ordena berean azalduko dira iruzkinak.

LABURPEN EXEKUTIBOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA.

Lehen orrialdeko lehen paragrafoko bigarren esaldia ez dago amaituta: *“destacar la capacidad de incluir una diversidad de grupos de la sociedad civil y”*.

Ekintza-planaren deskribapen orokorrak honako hau dio:

“La elaboración y posterior implementación del plan es liderada por un grupo promotor de ocho entidades, siete de las cuales son los ejecutivos autonómico/regional, provincial y de las principales ciudades”,

Gure ustez, honako hau gehitu beharko litzaioke: *“, y la octava, una organización no gubernamental de colaboración público privada y declarada de utilidad pública que promueve la innovación en el País Vasco, Innobasque.”*

Honako hau adierazten denean: *“A pesar de la inclusión de representantes de la sociedad civil en la elaboración del plan y de su participación en los foros generados, su influencia real ha sido limitada. La mayor capacidad técnica, organizativa y de coordinación de las siete instituciones gubernamentales promotoras del plan frente a un grupo de representantes de la sociedad civil muy heterogéneo y no coordinado explica esta limitación.”*

Gure ustez, honako hau gehitu beharko litzateke: *“, no obstante el plan contempla un modelo organizativo para su desarrollo, que son los grupos de compromiso, compuestos por ciudadanía experta y no experta y personal de las instituciones, que son grupos de trabajo abiertos*

generados para la implementación de cada uno de los compromisos y que rinden cuentas de su actividad de modo continuo, lo que está permitiendo que ostenten una mayor representación de modo que casi dos terceras partes son representantes de la sociedad civil, tal y como figura publicado en la web de OGP Euskadi. La primera actividad que realizaron fue precisamente la elaboración de las fichas operativas de cada compromiso que conformaron la versión ciudadana del plan, y están implicados directamente en la implementación del plan". (Hemen jaso: 1. Atala. Antolakuntza-eredua, plana egiteko prozesuko blokearen barruan). Osaera eta lanak webgunean argitaratuta daude: <http://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/konpromisoak-egindako-taldeak/>

II EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GOBERNU IREKIAREN TESTUINGURUA

Bigarren paragrafoan honako hau adierazten denean: *"En 2018, la candidatura del País Vasco, presentada conjuntamente entre el Gobierno Vasco y los principales gobiernos provinciales y locales, fue seleccionada por OGP para el programa de apoyo a gobiernos locales."*

Honako hau gehitzeko proposatzen dugu: *"y por una organización no gubernamental de colaboración público privada y declarada de utilidad pública que promueve la innovación en el País Vasco, Innobasque."*

Bestalde, terminoen arteko koherentziari euste aldera, honakoa esan beharko litzatekeela iruditzen zaigu: *"entre el gobierno autonómico y los principales gobiernos forales y locales", edo "entre el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de las tres capitales de los territorios históricos", edo, zuzenean, "entre el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales de Álava-Araba, Bizkaia y Gipuzkoa y los Ayuntamientos de Vitoria-Gasteiz, Bilbao, y Donostia-San Sebastián"*.

Testuinguru instituzional eta politikoa

Lehen paragrafoaren arabera, aldundiek *"deciden y recaudan los impuestos..."*. Gure aburuz, egokiagoa litzateke honako hau adieraztea: *"establecen, recaudan y distribuyen los impuestos, conforme al régimen foral que les otorga estas competencias, al Concierto Económico Vasco, y al Cupo , conforme al artículo 49 del Concierto, que reproduce literalmente lo dispuesto en la letra d) del apartado 2 del artículo 41 del Estatuto de Autonomía de Euskadi."*

Honako hau adierazten denean: *"Con esa recaudación se financia el presupuesto del Gobierno Vasco, de las propias diputaciones forales y las transferencias a los municipios", ondorengo gehitu dadila proposatzen dugu: "y se aporta al Estado por las competencias no transferidas así como al poder legislativo de cada territorio histórico (las Juntas Generales)."*

Honako hau esaten denean: *"La capacidad fiscal diferencia al País Vasco..."*, hobeto uler dadin, nahiz eta 5. oharrean dagoeneko esanda dagoen, gure iritziz, honako hau gehitu beharko litzateke: *"y a Navarra"*.

Bigarren paragrafoan *"El nivel de autogobierno del País Vasco... es también alto"* adierazten denean, beste herrialde batzuetako agenteek hobeto uler dezaten, honakoa gehi liteke: *"que le otorga la Constitución y el Estatuto de Autonomía del País Vasco"*.

Gobernu irekia Euskal Autonomia Erkidegoan

Gardentasunaren eta datu-irekieraren gainean foru-aldundietan indarrean den araudia aipatzen da (8) oharrean. Arau horiek diagnostikoan ere jaso ziren, baina Gipuzkoako Foru Aldundiaren

kasuan dagoeneko indargabetuta dago, eta haren ordezkari da 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. Horren berri eman beharko litzateke.

Halaber, (13) oharrean ere aipatzen da herritarren partaidetzari buruzko Gipuzkoako foru-araudia, eta hura ere indargabetuta dago. Haren ordezkari Herritarren Partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Araua ezarri dela adierazi beharko litzateke.

Laugarren paragrafoan honako hau adierazten denean: *“El Ararteko (Defensor del Pueblo) es la instancia más sobresaliente y popular”*, 18 oharra sartzen da, hau da, Arartekoaren webgunera jotzen duen lotura. Baieztapen hori zehatzagoa litzateke, baldin eta kalifikazio hori egiaztatzen duen azterketarekin lotuko balitz.

Irmoki baieztatzen da herritarrek ez dutela argi eta garbi identifikatutako mekanismorik gobernuari konpromisoak bete ditzatela eskatzeko edo konpromisoak urratu ezean gobernuak zigortzeko. Beharbada, baieztapen hori zehaztu egin beharko litzateke, hau da, Euskadin hainbat berme-organo daudela adierazi beharko litzateke, besteak beste: Informazio Publikoaren Sarbideko Euskal Batzordea, zeinak informazio publikoa eskuratzeko ezezkoen aurrean herritarren erreklamazioak artatzen baititu, eta kontuak benetan ematen direla bermatzea baitu xede nagusi, informazio publikoa emanez, funtsezkoa delako hartzen diren erabakiekiko, arduradun publikoen jardura-irizpideekiko eta funts publikoak maneiatzeko moduarekiko kritikoak diren herritarrek sustatzeko; edo etika publikoko batzordeak, zeintzuek erantzukizun publikoko pertsonen jarduteko moduari buruzko kexak, erreklamazioak eta kontsultak artatzen baitituzte.

Seigarren atalean ustelkeriaren eremua aipatzen denean, gure ustez, OGP Euskadi Planaren diagnostiko-agirian azaltzen den bezala, berariaz gehitu beharko litzateke EAEko erakunde nagusiek hainbat prebentzio-mekanismo dituztela txertatuta, besteak beste jarrera-kodeak eta horiek betetzen direla bermatzeko organoak.

IV KONPROMISOAK

1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez:

Planaren 4. mugarriak honako hau dio: “Identificación de claves para la participación/comunicación durante el seguimiento del plan de mandato (modelo de auditoría social)”. Definizio horren arabera, gizarte-auditoretza baten barruan sartu beharko litzateke gobernuaren lana ikuskatu, jarraipena egin, aztertu eta ebaluatzea; ondorioz, gobernuak beren ekintzen eta erabakien zioz kontuak ematea lortu beharko litzateke. Gobernuaren lanaren ebaluazio baten antzera, gizarte-auditoretza bat egitea gizarte-kontrolerako mekanismotzat jo daiteke, hau da, herritarrek beren gobernuko zerbitzarien gainean baliatu dezaketen kontrola da, horiek modu garden, arduratsu eta eraginkorrean jarduten dutela bermatzeko.

Ebaluatzailearen argudioen artean kontuak ematearen aldagaiari garrantzirik eman ez izana ulertzen dugu, baldin eta asmoa honako hau bada: ereduak nahitaez eragitea agintaldiko planak betetzen ez direnean zigorrak ezartzea. Izan ere, horrek, hasiera batean, nahiko konplexua dirudi.

Hala ere, gizarte-auditoretzako prozesuaren gainean herritarrek egiten dituzten ekarpenak eta kontrola eremuan jasotzeko aukera baloratu ahal da plana ezartzen den bitartean. Hau da, bi

aldeko ekimena izango da, eta parte hartzeko bitarteko horiek zehatzago definituko ditu, ekintza-planeko konpromisoan hitzez hitz adierazten denak baino.

Kontuak emateko ekimen isolatuak herritarren artean eragin baxua izan dezaketela ulertzen dugu, baina proiektu pilotuak garatzeko erakunde-kopuru nahikoa izatea espero dugu, eta, hala, toki-mailan sortzen den eragina eredugarria izan ahalko da konpromisora batzea erabakitzen duten erakunde berrientzat.

2. Open data Euskadi eta Linked Open data

Garrantziari erreparatuz gero, txostenean informazioa eskuratzeko bideari eta teknologia eta berrikuntzari buruzko baloreak aipatzen dira, eta, ez, ordea, herritarren partaidetzaren balorea. Balore hori, gure ustez, funtsezkoa da proiektu honetan, hainbat arrazoiren zioz:

- Herritarren eskarien azterketa duelako oinarritzat, eta azterketa hori aurreikusita zegoelako eta herritarren partaidetzarekin egin zelako.
- Ireki beharreko datuak herritarrek berrerabiltzeko direlako, nola merkataritza-erabilera pribatuak sortzeko edo ez, hala herritarrek administrazioek ematen dituzten zerbitzu publiko edo politiken auditoretza egiteko. Are gehiago, aukeratu diren datu-multzoak honako hauek dira: ingurumenaren kalitatea, mugikortasun iraunkorra, ekitaldi kultural eta administratiboen agenda partekatua, kirola eta bizimodu osasuntsua, eta kontu-ematea aurrekontuen eta gastuen bidez.
- Zerbitzuak (aplikazioak, bisualizazioak, bilatzaileak...) herritarrekin batera sortuz egingo direlako.
- Herritarrei bultzada emango zaielako datu horiekin ideiak eta aplikazioak sor ditzaten, Open Data 2020 Sarien bidez.

Izan dezakeen eraginari erreparatuz gero, eragin neurtua ezarri da, baina eraldatzailea izango dela uste dugu, aldatu egingo baitu administrazioen datu publikoak irekitzeko modua, herritarren eskarira bideratuz, eta, ez, ordea, administrazioek datu batzuk irekitzeko dituzten erraztasunetara. Halaber, herritarren gaitasun kritikoaren arabera, herritarren eskari hori oso lotuta egongo da kontuak ematearekin, politika eta zerbitzu publikoen eragina zalantzan jarrita. Izaera eraldatzaile horren lekuko, aurreikuspenen arabera, konpromiso honetan identifikatu diren datu-multzoen gainean egiten diren ideia eta aplikazio onenei emango zaizkie hurrengo Open Data Euskadi 2020 Sariak (erakundeartekoak direnak), eta hori bera datu eraldatzailea da, herritarrak arima kritikoa izatera bultzatzen baitira.

Izaera eraldatzaile horren beste adibide bat da honako hau: epe laburrera dagoeneko ikusten dira identifikatutako datu-multzoak irekitzeko arriskuak, horien eskuragarritasuna, digitalizazio-maila, estandarizazio-zailtasunak eta abar kausa. Arrisku horiek, izan ere, berez datoz administrazioen ohiko jarduera-modua eraldatzen duen erronka batekin.

3.Herritarren parte-hartzearen I-laba Euskadin

Txostenean adierazi da, hurrengo urratsen atalean, parte hartzeko espazio batzuk, gaitasun handieneko sektoreak, eta parte hartzearen helburuak identifikatu egin behar direla. Horren harira, azpimarratzekoa da proiektu pilotuak hasteko zorian daudela, eta proiektu horiek, hautaketa-prozesu ireki baten ostean sektore-politika zehatzetan garatuko direla, besteak beste

osasunean, gizarte-desberdintasunetan, ingurumenean, genero-berdintasunean... Hautaketa-prozesu horretan, zehazki, irizpide gisa baloratu da administrazioen eta herritarren jardueramoduan aldaketak eragitea, baldin eta kontzeptu gisa ezarri den l-laberen eredu frogatzeko balio badute.

Ondorioz, txostenean gomendio hori zehaztu liteke. Hala ere, gehitu egin beharko litzateke Planean dagoeneko jasotzen dela, proiektu pilotuak egitean. Izan ere, honako arloetan egingo direla adierazten da: "en áreas de interés ciudadano o donde resulte necesaria una respuesta o implicación ciudadana". Halaber, okupatuta ez dauden etxebizitzaren alokairuak edo gizarte-zerbitzuak aipatzen ziren adibidetzat.

4.1-Open Eskola (herritarrentzat irekitako eskola)

4. konpromisoari jarraikiz, etorkizunean, txostenean, eta, zehazki, hurrengo urratsetan, komenigarria da aztertzea ea Open Eskola ordezkari politiko eta funtzio publikoen artera zabaldu beharko litzatekeen. Egia da izenak berak (herritarrentzat irekitako eskola) txarto ulertuak eragin ditzakeela konpromisoa interpretatzean, herritarrei soilik zuzenduta dagoela uler baitaiteke. Hala ere, hasierako kontzeptua ezartzean, Planean honakoa azaltzen zen: "*que sea un espacio de aprendizaje en habilidades para la colaboración en la cogeneración de valor público donde se implique la ciudadanía y personal técnico y político de la gestión pública*". Eta helburu eraginkorretan honakoa adierazten zen: "*generar actitudes y comportamientos tanto en la ciudadanía como en los agentes públicos proclives a la colaboración basados en la confianza, lo que permitirá indagar en las necesidades e intereses diversos de las partes, la comunicación efectiva, la escucha activa, la prevención del conflicto o la solución del conflicto de manera no confrontativa buscando acuerdos satisfactorios para las partes...*". Ondorioz, ordurako adierazten zen Open Eskola herritarren eskola bat izango zela, eta, ez, ordea, herritarrentzako eskola. Hori dela eta, nahasura eragin dezakeen gomendio hori ezabatu beharko litzatekeela uste dugu.

Halaber, 3. konpromisoarekiko koordinazioa egon dadila proposatu da, hain zuzen ere, garatzen diren berrikuntzak Open Eskolaren bidez hedatu daitezkeen. Ondorio hori bera aterata da plana ezarri bitartean ere, eta, are gehiago, koordinazio-bilerak egiten ari dira bi konpromiso-taldeen artean, tresna horien kontzeptualizazioari koherentzia emateko: herritarren partaidetzarako berrikuntzaren l-lab eta Open Eskola. Kasu honetan, azalpen bat da, eta ez da nahitaezkoa txostenean agertzea.

5.Integritatearen Euskal Sistema

Planean berariaz jasotzen zen konpromiso honen asmoa honako hau zela: eredu bat eraikitzea, kargudun publikoen jarrera zaintzeko printzipioak, tresnak eta bitartekoak identifikatuta, eta, horretarako, bete beharreko jarrera-arauak, printzipioak eta balorea aplikatzea eta berme-sistemak ezartzea, aplikagarritasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeko, besteak beste, kontsulta, kexa edo salaketak aurkezteko postontziak, etika-batzordeak, pertsona salatzailea babesteko prozedurak, zehapen-araubideak eta abar, hau da, diskrezionalitatea eta arbitrariotasuna

kontrolatzeko sistemak... Euskadin integritatearen jarraipena egiteko eta kontrolatzeko sistemak, bai eta integritatean oinarritutako hezkuntza-eredu bat ere. Ondorioz, konpromisoa irakurrita egin daitekeen interpretazioan ezin dugu ulertu kontuak emateko garrantzitsua ez denik, herritarrek honakoak izango baitituzte:

- Integritate-sistema horiei buruzko ezagutza
- Salaketak eta kexak jartzeko eta orientazioa jasotzeko aukera

Egia da plana ezartzean nabarmenago geratuko dela, garatutako ereduaren aurrerapen-agirietan dagoeneko ikus baitaiteke tresna horiek zehazki zer diren. Hala, Integritatearen Euskal Sistemari buruzko webgune zehatz bat sortzea aurreikusten da, esaterako, eta, bertan, kontsultak eta kexak egiteko bitarteko hori jaso ahalko da. Ondorioz, garrantzitsutzat jotzen da informazioa eskuratzeko orduan, herritarrei integritateari buruzko informazioa (kontzeptuak, irizpideak, tresnak) emateko bitarteko egokia izango baita, herritarren partaidetzarekin lotuta (salaketak edo kexak aurkezteko bitartekoa informazio-iturri garrantzitsua izango da praxi desagokiak prebenitu eta zuzentzeko), eta, noski, berritzailea izango baita kontuak emateko. Izan ere, ez dakigu non dagoen integritateari buruzko orri bat, printzipio eta tresna komunak erakundeartean jasotzen dituen.

Azkenik, hurrengo urratsen atalean aipatzekoa da, Planean berariaz zehaztu zen bezala, garatu nahi den integritatean oinarritutako hezkuntza-eredua naturalki txertatuko dela 4. konpromisoan garatzen ari den Open Eskolaren ereduari.

GOMENDIO OROKORRAK

Lehen gomendioaren arabera, beharrezkoa da gizarte-arloa indartzea, eta, horretarako, administrazio publikoekin modu proaktiboagoan jarduteko beharrezko gaitasun tekniko eta antolakuntzakoak dituzten gizarte-sektoreetako erakunde ordezkariak sartu behar dira.

Iragan uztailaren 10eko bileran, zehazki, aurretiazko txostena egiaztatzean, foro erregularren eta konpromiso-taldeen parte den gizarte zibilarekin egiaztatu zen nola hobetu eta landu daitekeen alderdi hau, plana ezarri eta bigarren plana diseinatzen den bitartean. Hala ere, alderdi hori txostenean zehaztu dadin, honako hau nabarmendu nahiko genuke.

Aurrekontu publikoekiko mendetasun altua ez duten gizarte-erakundeak edukitzeko gomendioa mintzagai, gure ustez hori kontraesankorra da Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko errealitatearekin, hirugarren gizarte-sektore oso indartsua baitu. Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Liburu Zuriaren datuak, zehazki, honako hauek dira: 3.500 erakundek dute egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horietan, 125.000 pertsona boluntario eta 36.000 enplegatu daude. Euskadin Hirugarren Gizarte Sektoreak osatzen du EAEko BPGren % 2,2. Herritarren ekimeneko eta irabazi-asmorik gabeko erakunde horiek pertsona guztien eskubideen defentsa eta interes orokorra sustatzen dituzte, eta, bereziki, ahulezia-egoera handian dauden pertsonena. Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen gizarte-oinarria honako hauek osatzen dute: batez ere boluntarioek; bazterkeria, ezintasun, mendetasun edo babesgabeziaren eragina duten talde edo pertsonak; elkarteko pertsonak; eta ordainsaria duten profesionalek. Bistakoa da Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren gizarte-sektoreak finantziario publiko garrantzitsua duela, baina sektore hori erreferentea da

herritarren ikuspegia sartzeko eremu askotako politika publikoetan, batez ere gizarte-politiketan, laneratzearekin, kultura-gaiekin, kirolarekin eta osasunarekin lotutako politiketan eta abar. Informazio gehiago eskuratzeko: <https://www.sareensarea.eus/eu/euskadiko-hirugarren-gizarte-sektorea>. Sareen Sarea elkartearen sartzeko dira Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorerako erakundeak. Hala, elkarte hau Foro Erregularraren parte da, eta hainbat konpromisotaldetan parte hartzen ari da.

Txostenaren arabera, halaber, bereizi egin beharko lirateke, batetik, gizarte zibilaren ordezkariak eta, bestetik, gobernu irekiaren arloan adituak diren pertsonak eta enpresak. Era berean, azken horiek foro erregularretik kanpo utzita antolatu liteke lana. Hartara, gai zehatzei buruzko kontsultak edo txosten teknikoak eskatuta ezarriko litzateke horiekiko harremana. Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoak errealitate berezia dauka: laugarren sektorea, hau da, gizarte-asmo batekin lotutako ekimena iraunkor bihurtzea xede duten erakundeak, onurak sortzeko asmorik gabe. Euskadin laugarren sektorea sortu da, hain zuzen ere, gizarte-enpresek kudeaketa-sistema bat eduki beharra dutelako, iraunkortasuna bermatuko diena. Sistema hori, zehazki, jabetza inklusiboan eta gobernantza banatuan oinarrituta dago. Eremu horretan sar litezke gizarte-erantzukizun korporatiboa, gizarte-ekintzaitza, negozio inklusiboak eta bidezko merkataritza. Ondorioz, zaila da pentsatzea erakunde horiekiko harreman bakarra merkataritzakoa izango denik, lanak aginduz. Beraz, txostenen gomendio hori zehaztu dadila eskatzen dugu. Izan ere, Euskadin hain hedatuta dauden agente horien partaidetzak nahitaez interes-gatazkak eragin ditzakeela ematen du.

Gizarte-ordezkaritzari dagokionez, halaber, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partehartzeari buruzko Liburu Zurian islatu zen ikuspegi bat txertatzea ere gustatuko litzaziguke. Liburu hori 2014an egin zen, 500 pertsona eta 150 erakunde baino gehiagoren partaidetzarekin, eta, horren arabera, ikuspegi berriak behar ditugu ekonomian, gizartearen, politikan eta kulturaren, inplikaturak direnak eta ekarpenak egingo dituztenak, ez hainbeste ordezkariak numeriko edo formaletik, baizik eta beren diskurtsoaren baloretik eta ekarpenetik. Ondorioz, eredu partaide inklusiboan oinarritzen da Liburu Zuria, eta berriaz sustatzen du aliantza berriak sortu daitezela, ikuspegi eta ñabardura desberdinak emateko, ordezkariak formal edo numerikotik harago. Hala, gutxiengoak azaleratzen dira, eta diskurtso publikoaren aldean aurreratuak, disruptiboagoak eta berritzaileak diren ikuspegiak txertatu daitezke. Hori dela eta, egokia iruditzen zaigu lehen gomendio hori zehaztea. Izan ere, gizarte zibileko dimentsio eta egitura handiko ordezkariak dutenak soilik ematen du ordezkariak egokia.

Azkenik, txostenaren gaineko iruzkin orokor bat egin nahi dugu: EAEko erakundeok konprometituta gaude hizkuntzaren erabilera ez sexistarekin, eta komenigarria litzateke bi generoak aipatzeko erabilitako termino maskulinoak ezabatzea, besteak beste: “los ciudadanos”, horren ordez “ciudadanía” edo sinpleki “ciudadanas y ciudadanos” erabil bailiteke; gauza bera “los expertos” terminoarekin edo antzekoekin, horren ordez “personas expertas” erabilita.

Sin.: Luis Petrikorena Arbelaz (OGP Euskadi-ren arduradun politikoa)

Sin.: Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino (OGP Euskadi proiektuaren arduraduna)